

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hasi dituzte Eunateko basilizaren eta ostatuaren ingurua konpontzeko eta egokitzeko lanak

Nafarroako Gobernuaren asmoa da euri-jasek ahalik eta kalte gutxien egitea

Viernes, 11 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak euri-jasek Eunateko ostatuan eta basilizan eragin ditzaketen kalteak gutxitzeko neurriak hartu ditu. Hala, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarriko sozietate emakidadunak, Aguacanalek, bi eraikinei dagokien drainatze-zangan mantentze-lan sistematikoa egingo du.

Eraikineko arduradunek azken garbiketa egin eta Udalak drainatze-zanga lehortu ondoren, ikusi zuten uholdeek ez zituztela kaltetu ez eraikina ez eraikineko altzariak, eta horixe bera egiaztatu du gaur goizean, han bertan, bigarren lehendakariorde eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sanchez de Muniainek.

Kontseilariak esan duenez, neurri osagarri gisa ura husteko sistemari iparraldean babes-pantaila bat atxikitze aukera aztertuko dute, ostatu aldera urak gainezka egiteko arriskua gutxitzeko; horretarako, aurrez, pantailaren garaierak monumentuaren ikuspegiari kalte egingo ote dion aztertuko dute.

Eraikinetan laster egingo dituzten lanak

Departamentuko Ondare Historikoko Zerbitzuak beste bi lan egingo ditu eraikinetan. Bata basilizako barruti irekiko estolda-zuloen ingurukoa da; izan ere, zuloak inguruko errekarriak baino gorago dagoenez, euri asko egiten duenean putzuak sortzen dira. Departamentuak estolda-zuloak itxita ez daudela egiaztatu eta ura non husten den ikusiko du. Gero, arazoa konpontzeko egin beharreko lanak egingo dituzte. Lan hori 12.000 euro inguru kostako da.

Bestetik, basiliza inguratzen duen arkuteria exentua 1941eko birgaitze-lanetan lauzekin babestu zuten, eta batzuk erori egin dira. Gehiago eror ez daitezten, arkuteria estaltzen duten lauza guztiak finkatuko dituzte; lan hori dagoeneko esleitu dute eta 4.786 euro kostako



Eunateko basilizara eta ostatura bisita ofiziala egin dute.

da.

Egindako lanak

Vianako Printzea erakundeak arreta handia ematen dio Eunateko basilizari, monumentu garrantzitsua baita. Esate batera, Vianako Printze erakunde sortu berriak aurrera eramandako lanetako bat izan zen basiliza zaharberritzea; proiektua Jose Yarnozek egin zuen, eta hark zuzendu zituen zaharberritze-lanak, 1940an. Halaber, 1968an eta 1972an estalkiak berritu zituzten eta 2000. eta 2011. urteetan basilizan mantentze-lanak eta ermitauaren etxean egokitze-lanak egin zituzten.